

Altza

# “Hip hop-a dantzatzea ez da zaila”

Elisabet Baztan Iarriotarrak eta Sergio Ngema amaratarrak Smoke Screen hip hop taldea osatzen dute.

Dantza emanaldiez gain, eskolak ematen dituzte leku askotan, Jolastokieta kulturgunean, esaterako. Elisabetek, taldeaz eta hip hopaz hitz egin digu.

Noiz sortu zen Smoke Screen taldea?

1997an sortu genuen Sergiok eta biok. Hasieran, afizioagatik hasi ginen hip hopa dantzatzeko, baina orain dantza ofizio bilakatu zaigu. Emanaldiak eskaintzen ditugu: tabernetan, dantzalekuetan, kultur etxeetan, auzoetako jaietan... Horretaz gain, eskolak ematen ditugu gimnasioetan eta dantza akademiatan.

Gimnasioetan ere aritzen zarete, beraz.

Bai horixe. Gimnasioetan dantza eskolak ematearen arrazoia sinplea da: Hip hopa aerobikaren orde egin daiteke, beste aukera da, izerdi pila botatzen baita. Dantza mota honek gero eta zale gehiago ditu, urtetik urtera. Justine Timberlake eta beste abeslari estatubatuar batzuk modan daude, eta hemen ere, dantza akademiatan, hip



hopa eskatzen du jendeak. Beraz, hip hop zale donostiarrik bada.

Sergio eta biok Bartzelonan egon berri gara, eta hiri handietan, gauza guztietarako aukera gehiago dago. Donostia hiri txikia da, eta taberna eta dantzalekuetan nahiago izaten dute musika mota ezagunak jartzea. Apustu egin beharko lukete musika berriagoen alde, hip hop-aren alde, adibidez. Zorionez, jende gaztea bultzaka ari da, musika eta dantza mota berriei tartea egin diezaieten. Gure emanaldiek sekulako harrera dute.

Zaila al da dantza mota hau? Ez da zaila. Jakina, zenbat eta dohain gehiago izan, orduan eta gutxiago kostatuko zaizu ikastea. Musika gustuko baduzu eta lasai hartzen baduzu, ez du

aparteko zailtasunik. Ez da balleta bezala. Malgutasuna ez da ezinbestekoa.

Zer argudio erabiliko zenuke jendea zuen ikastaroetara hurbil dadin?

Orena probatzea da. Hip hop-oso dantza atsegina da. Gainera, poliki-poliki hasten gara, eta jendeak gozatu egiten du. Niretzat dantza dibertsioa da. Gure eskoletan jende gazteak parte hartzen du, batez ere. Helduek uste du dantza mota hau azkarregia dela, eta ezin izango dutela egin, baina oker dabilta. Nor bere erritmora joan daiteke. Beste dantza mota batzuetan, berdintasuna bilatzen da. Hip hop-ean, aldiz, norbanakoaren estiloa garatzea bilatzen dugu. Hau da, nork bere burua eta bere gorputza ezagutzeko da helburua.

**“Gure emanaldiek sekulako harrera dute”**

## euskararen donostia

proiektuak



Donostia Hiriko Auzolaguntza

### Musika

- **Imanolen omenezko ekitaldia**  
Kantu-bazkaria  
Urriaren 16an, Antiguako frontoan  
Imanol Ororitz taldeak antolatuta
- **Txuma Murugarren**  
Nire anaiaren kotxeko argia diskoaren aurkezpena  
Urriaren 22an, 20.30ean  
Lugaritz kultur etxean  
Sarrera: 6€

### Haur

#### antzerkia

- **Bihotz bihotzez**  
Teatro Paraiso  
3 urtetik gorakoentzat  
Urriaren 16an, 18.00etan  
Intxaurren Berri Kultur Etxean

### Ipuinaren

#### ordua

- **Txiki-pulnak**  
3-5 urte bitartekoentzat  
Urriaren 18an, 18.00etan  
Lololako kultur etxean

### Ikastaroak

- **Gidoigintza**  
Mikrolaburmetriak lantzeko iraupena: Urriaren 19tik abenduaren 14ra  
Ordutegia: 17.30etatik 20.00etara  
16 urtetik 30 urte bitartekoentzat  
Asteartero Kontadores Gaztelekuan  
Prezioa: 29€

euskaraz.net